



ITZIAR MORENO
EUSKAL PERTSONA
POLIFAZETIKOA

Oporrik ez elkartasunari

Prekaritateak prekaritate, Euskal Herriko ezkerreko militanteak, oro har, ez gara txarto bizi. Udako oporrrak dira horren adibide, asko baikara atsedean plan bikaina dugunok; ikastaldi aroko gure ekologismoari, ordea, keroseno kiratsa dario. Zein baino zein hegaldi garestiagoak hartuko ditugu, lehia ahalkegarrian, nor urrunago, nor paradisu gentrifikatuago batera. Gerta daiteke zirrikitu bakartiak nahiago izatea eta, orduan, gure furgoneta kanperizatuarekin abiatuko gara, bazter erromantiko-ekutuenerainoko safari “mendizaleetan”, pneumatikoen lorratzaz mendia desondratuz. Betiere, nork selfie irribarre-tsuagoa, liluragarriagoa atera.

Bidegabekeriek ez dute etenik, ordea. Kaleratzeek, *txakurren* gehiegikeriek, eraso matxista/arrazista/homofobo eta abarrek... ez dute bakantzarik hartzen. Eta, oso zorigaitzez, Israeleko tankeek ez dute oporraldi tankera handirik.

Gure lan prekarioetan larruak utzi ostean, ordea, ez al ditugu guk ere merezi lantokietan luzaz borrokatutako opor horiek...?

Bada, *Jaia bai, borroka ere bai!* leloak, zaharra izanagatik, ez luke zertan modaz kanpo egon. Badira gure paisaia ederretan plan erakargarriak aukeran, dibertigarriak, borrokalariak, kulturaz eta esperientzia betegarritz josiak. Esa-

terako, EHZ, udako lehen hitzordu herrikoi handia; ekaina amaieran, Arbera-tze-Zilhekoan, txoko, eskaintza, giro eta antolakuntza paregabeak! Jarraian, Hattortxu Rock: presoan aldeko jairik erraldioenaren azken emanaldia izango dugu aurten Lakuntzan. 100 kontzertuotan ozen abestuko dugu, azken presoak etxeratu arte borrokan jarraituko dugula!

Bi festibalotan dugu parada hainbat hitzaldi edota tailerretan esku hartzeko; berbarako, Joxemi Zumalabek antolatuko dituenak Herri Mugimendu(ar)en eraginkortasun politikoari buruz hausnartzeko. Zein eragin izan dute azken urteotako aldaketa politikoek mugimendu borrokalarietan? Militante izan ala ez, denak gonbidatuta gaude gure iritzia ematera!

Eta aizu, hegaldi bat hartuz gero, izan dadila borrokan diren herriei gure ekarpentxo eskaintzeko. Oraindik ere, urtero antolatzen dira brigadak munduko hamaika txokotara elkartasuna eramateko. Orobat, Palestinaren alde hemen egiten dugunak ezer gutxiarako balio duela pentsatu ohi dugu, ikusita sarraskiak ez duela etenik. Bada, ekaina erdialdean, adibidez, deialdia egin zuten Egiptora bidaiatzeko Gazako mugan presioa egiteko helburuz. Etorriko dira deialdi gehiago! Oporretan ere, elkartasunari eutsi! ●



CASTILLO SUÁREZ
IDAZLEA

Alferrikako bidaia

Lehengoan batera elkarriketatu gintuzten Gonzalo Hermo poeta gali-ziarra eta neu. Kontatzen nion niri ere gustatuko litzaidakeela esatea nire aurrekoak marinela izan zirela, baina nire familian denak dira galdatzaileak. Gainera, eremu industrial batean bizi naiz, itsasotik urruti, eta nire etxetik lantegiak ikusten ez badira ere, garai batean gai nintzen urrutitik bereizteko zer zen galdatzen ari zirena, aluminioa edo burdina. Eta esaten nion aspertu egiten naizela lantokian, dirulaguntzak banatzen ditudala eta, edo asmatzen dudala,

edo ez zaidala aparteko ezer gertatzen idazteko modukoa denik. Elkarriketa hura berriki Camila Sosa Villada poeta argentinarrari irakurritakoarekin gurrutzatu zait. Bere ustez bi idazle mota daude: fantasia idazten dutenak edo oroitzapenak idazten dituztenak. Esaten du berari buruz idazten duela beti, baina beti ez dela posible. Izan ere, batzuetan idatzi eta ezabatu egiten du idatzitakoa, horrela bere burua suntsituko balu bezala. Alferrikako bidaia dela buruan duguna eta idatzi ezin den hori. Idazten ez den bitzita badela. ●